



Erabilera-gida

*Elkarreragingarriak ez diren fitxategien
trukearen erabilera*

-

NISAE "apalategia"

2022ko ekaina

Izenpe SA



Dokumentazioaren kontrola

Dokumentuaren izenburua: Fitxategien trukearen erabilera

Bertsioen historia

Kodea	Bertsioa	Data	Izandako aldaketen laburpena
	1	2022/06/30	Hasierako bertsioa.

Azken bertsioaz geroztik izandako

aldaketak Zabalkundearen kontrola

Arduraduna:

Nork onartua:

Sinadura:

Data:

Fitxategiaren erreferentziak

Egilea: NISAE – Bitartekotza operatiboa Fitxategi-

izena: NISAE *Erabilera-gida – Fitxategien trukea.doc*

Kokapena:

Edukia

<i>Kapitulua/atala</i>	<i>Orrialdea</i>
Sarrera.....	4
Dokumentuaren helburua	4
Funtzionamendua.....	5
Zerbitzuaren sorrera	5
Baimena eskatzea	5
Eskaera-fitxategiak sortzea eta igotzea (lagapen-hartzailea)	5
NISAEn bidez fitxategia bidaltzea.....	8
Fitxategia deskargatzea eta tratatzea (lagatzailea).....	9
Erantzun-fitxategiak sortzea eta igotzea (lagatzailea)	12
NISAEn bidez fitxategia bidaltzea.....	13
Erantzun-fitxategia jasotzea (lagapen-hartzailea)	13
Kontsiderazioak.....	15
Erakunde parte-hartzaileak.....	15
Zerbitzu eta baimen berriak.....	16
Fitxategien formatua.....	16
FILES zerbitzuak	16

Sarrera

Dokumentuaren helburua

EAEko Administrazio Publikoko hainbat erakunderen artean informazio-fitxategiak trukatzeko beharrari aurre egiteko bitarteko gisa NISA Eren Eskuzko Bitartekaritza Plataforma erabiltzea proposatzen da.

Funtzionamendua

Zerbitzuaren sorrera

Bitartekotza Operatiboaren bidez kontsultatuko ez den arren, fitxategiak zuzenduta dauden zerbitzuak sisteman existitu behar du. Hori dela eta, datu-basean alta emanda egon behar du.

Baimena eskatzea

Gainerako zerbitzuen kasuan bezala, fitxategiak trukatu ahal izateko, fitxategia zuzenduta dagoen zerbitzurako baimendutako prozedura bat izan behar da.

Baimena eskatzeko prozesua eskuragarri dauden gainerako prozedura eta zerbitzuetarako behar den berbera da.

Eskaera-fitxategiak sortzea eta igotzea (lagapen-hartzailea)

Erakunde lagapen-hartzailea arduratuko da eskaera-fitxategia sortzeaz, EJ-IVAPek proposatutako egitura eta CSV formatua erabilita.



Eskaera-fitxategia NISAEra eraman eta banatzeko, lagapen-hartzaileak Eskuzko Bitartekaritzaren bidez igo dezake, edo modu programatikoan, Fitxategien Integraziorako Plataformaren (PIF) bidez. Bi bideak erabil daitezke, eta erakunde lagapen-hartzaileak aukeratuko du zein erabili. Aintzat hartu behar da lagapen-hartzaileak eskaera-fitxategia bidaltzeko erabili duen bide beretik jasoko duela dagokion erantzun-fitxategia.

NISAEren bidez eskaera-fitxategia igotzea (Eskuzko bitartekaritza)

Fitxategiak trukatzeko bide gisa NISAEren Eskuzko Bitartekaritza erabiltzeko, web-plataforma erabiltzeko beharrezko baldintzak izan behar ditu lagapen-hartzaileak (ziurtagiriak, baimenak...).

Behin sartu denean eta eskatu duen zerbitzua kontsumitzeko baimena duenean, NISAEren atarian, Eskuzko Bitartekaritza atalean, erabiltzaileak zerbitzua ("FITXATEGIAK" etiketarekin izendatua) eta kontsumitzeko baimendutako prozedura/k topatuko ditu.

Honako adibide honetan Laneko Esperientzia zerbitzuaren itxura ikusten da (zerbitzu hori ez da elkarreragingarria, eta fitxategiak trukatzeko baino ezin da erabili), eta zerbitzu horretarako baimendutako prozedurena.



“Eskaera” sakatzean, zerbitzuaren ikuspegiara sartuko da. Hiru erlaitz izango ditu:

- Fitxategi berria: formulario bat agertuko da, ekipoa ino nahi dugun eskaera-fitxategia aukeratzeko.

NUEVO FICHERO FICHEROS PENDIENTES HISTÓRICO

NISAE - Experiencia Laboral (Ficheros)

Procedimiento: **Certificación de experiencia laboral**

Entidad: **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Documento: **Elegir archivo** INT FICH EXPLAB...sio a dos cede.csv
INT FICH EXPLAB01 Prueba 1 Un cesio a dos cede.csv

CONFIRMAR **DESCARTAR**

- Zain dauden fitxategiak: Lagapen-hartzaileak erakunde bati edo gehiagori bidali dizkien fitxategiak kontsulta daitezke erlaitz honetan, oraindik ere amaitu gabeko egoeraren batean daudenak (lagapen-hartzaileari bidaltzeko zain, lagatzaileari bidalita...). Erlaitz honetatik deskarga daiteke erantzun-fitxategia, eskuragarri dagoenean.

NISAE SERVICIOS DISPONIBLES **TRANSMISIONES PENDIENTES** TRANSMISIONES COMPLETADAS Alvaro Pérez Pérez **es** **CEU** **Cerrar**

NUEVO FICHERO FICHEROS PENDIENTES HISTÓRICO

NISAE - Experiencia Laboral (Ficheros)

Procedimiento: **Ficheros ayto xabi**


Diputación Foral de Araba/Álava

Fichero solicitante	Fecha solicitud	Fecha respuesta	Estado	Acciones
nabir.pdf	01/04/2022 11:54:44		Pendiente	DESCARGAR RESPUESTA

NISAE

Fichero solicitante	Fecha solicitud	Fecha respuesta	Estado	Acciones
pruebas.csv	01/05/2022 10:44:38		Enteada	DESCARGAR RESPUESTA
pruebas.csv	02/05/2022 10:43:05		Pendiente Entrega cuestionario	DESCARGAR RESPUESTA
uno010.pdf	31/05/2022 22:42:08		Pendiente Entrega cuestionario	DESCARGAR RESPUESTA

- **Historia:** Zerbitzura bidalitako fitxategi guztiak eta aukeratutako prozedura guztiak kontsultatu eta iragaz daitezke erlaitz honetan.



PIFen bidez eskaera-fitxategia igotzea (programatikoki)

Fitxategiak trukatzeko Fitxategien Integraziorako Plataforma erabiltzeko, lagapen-hartzaileak PIF erabiltzaile bat izan behar du (erabiltzailea EJIeri eskatu behar zaio, eta hark esleituko du).

Eskaera-fitxategia zuzen tratatu eta bidaltzeko, NISAEren PIF eremuan utzi behar da, zehazki, bide honetan: </x53ji/filesNISAE/solicitudes/>

Fitxategia honela izendatu behar da:

A_[CIFSolicitante]_S_[CIFICedente]_[CodProcSolic]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HHmmss].[extension]

- **CIFSolicitante:** Erakunde eskatzailearen IFK.
- **CIFICedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK.
- **CodProcSolic:** Eskaera gauzatzeko aurrera eramaten ari den prozeduraren koda.
 - o **Kode honek EZ du “_” (beheko marra) karakterea izan behar.**
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa. (Adibidez: *FILESEXPLABAP*)
- **yyyyMMdd:** Fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.
- **HHmmss:** Fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **Extensión:** csv

NISAEren bidez fitxategia bidaltzea

Egunero exekutatu da prozesu automatizatua. Prozesu horrek fitxategiak jaso (eskaerenak zein erantzunenak), banan-banan prozesatu eta dagokion erakundeari bidaliko dizkio.

Prozesu horrek eskatzaileak bidalitako eskaera-fitxategia hautemango du eta prozesatu egingo du:

- Sinadura-fitxategi bat sortuko da (*detached* sinadura .xml formatuan), bidaltzean fitxategia ez dela aldatu bermatzeko eta erakunde lagatzaileak, hala nahi badu, egiaztatu ahal izateko.
- Eskaera-fitxategiaren metadatuaren fitxategi bat sortuko da (.txt formatua), eskaera-fitxategiaren gaineko informazioarekin (izena, tamaina...).
- Sortutako fitxategiak eta jatorrizko eskaera-fitxategia .zip formatuan konprimatuko dira, eta zuzenduta dagoen lagatzaileari bidaliko zaio.

Fitxategia bidaltzeaz gain, prozesuak erantzun-prozedura bat sortuko du fitxategiaren lagatzailearentzat, eta kontsumitzeko baimena emango dio. Hori modu automatikoan egingo da eta lagatzaileak ezingo du ikusi. Erantzun-fitxategia erakunde eskatzaileari bidaltzeko eta zuzenduta dagoen zerbitzurako baino ezingo du erabili sortutako prozedura lagatzaileak.

- Erantzun-prozedura existitzen ez bada: prozedura sortuko da lagatzailearentzat. Eskatzaileak fitxategia bidaltzeko erabilitako prozeduraren antzekoa izango da, baina honen kodeak "--RESP" atzizkia izango du, erantzun-prozedura berezi gisa identifikatzeko. Sortu ondoren, prozedura hori modu automatikoan baimenduko da eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen zerbitzurako.
- Erantzun-prozedura existitzen bazen: Prozedura baimenduko da fitxategia zuzenduta dagoen zerbitzurako (dagoeneko baimenduta ez badago).
- Ez da baimenduko erakunde lagatzaileko erabiltzailerik. Fitxategi horiek trukatzeko ardura duten organoen taulan ezarritako erabiltzaileari mezu elektronikoa bat bidaliko zaio, eta erabiltzaile horrek (organo arduradunen taulan alta ematean, eskatzaile-rola esleitu beharko zaio) eskatuko ditu Eskuzko Bitartekotzarako erabiltzaileentzako baimenak.

Fitxategia deskargatzea eta tratatzea (lagatzailea)

Erakunde lagatzaileek nola jardungo duten erabaki eta NISA Eri jakinarazi behar diote (lagapen-hartzailearen eskaera-fitxategia deskargatu eta erantzun-fitxategia igo).

Erakunde lagatzaileek NISA Eren Eskuzko Bitartekaritzaren bidez egin dezakete, edo modu programatikoan, PIFen bidez.

NISA Eren bidez fitxategia deskargatzea (Eskuzko bitartekaritza)


Fitxategiak trukatzeko bide gisa NISA Eren Eskuzko Bitartekaritza erabiltzeko, web-plataforma erabiltzeko beharrezko baldintzak izan behar ditu lagatzaileak (ziurtagiriak, baimenak...). Gainera, sartuko den erabiltzaileak *Eskuzko Bitartekaritza* rola izan behar du.

Erakunde bereko beste erabiltzaile batek NISA Eren bidez fitxategiak trukatu nahi baditu, administratzaileak edo eskatzaile-rola duen erabiltzaileak esleitu edo eskatu beharko dizkio dagozkion baimenak/rolak.

Behin NISAEren atarira sartuta, Eskuzko Bitartekaritza atalean, erabiltzaileak zerbitzua (“FITXATEGIAK” etiketarekin izendatua) eta kontsumitzeko baimendutako prozedura/k topatuko ditu.


Erantzun-prozedura bereziak “--RESP” atzizkia dutenak izango dira.

Honako adibide honetan Laneko Esperientzia zerbitzuaren itxura ikusten da (zerbitzu hori ez da elkarrengingarria, eta fitxategiak trukatzeko baino ezin da erabili), eta zerbitzu horretarako baimenduta dauden erantzun-prozedura bereziak, lagatzaileak erantzun ahal izateko.



“Eskaerak” sakatzean, zerbitzuaren ikuspegira sartuko da. Bi erlantz izango ditu:

- Zain dauden fitxategiak: Lagapen-hartzaileak lagatzaileari bidalitako fitxategiak kontsulta daitezke erlantz honetan, lagatzaileak erantzun (edo baztertu) beharrekoak. Erlantz honetatik eskaera-fitxategia deskarga daiteke. Deskargatu ondoren, “Erantzuna igo” eta “Baztertu” botoiak gaituko dira.



Deskargatutako fitxategi bakoitza karpeta konprimatu bat (.zip) izango da, honako izenarekin:

A/IM_[CIFSolicitante]_S_[CIFCedente]_[CodProcCesionario]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HH mmss].[extension]

- **CIFSolicitante:** Erakunde eskatzailearen IFK.
- **CIFCedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK.
- **CodProcSolic:** Eskaera gauzatzeko aurrera eramaten ari den prozeduraren kodea.
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa. (Adibidez: *FILESEXPLABAP*)
- **yyyyMMdd:** Fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.
- **HHmmss:** Fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **Extensión:** zip

Barruan egongo da jatorrizko eskaera-fitxategia (.csv formatua), metadatuaren fitxategia (.txt formatua) eta sinaduraren fitxategia (.xml formatua).

- Historia: Zerbitzura bidalitako fitxategi guztiak eta aukeratutako prozedura guztiak kontsultatu eta iragaz daitezke erlaitz honetan.

The screenshot shows the NISAE web application interface. The top navigation bar includes 'SERVICIOS DISPONIBLES', 'TRANSMISIONES PENDIENTES', and 'TRANSMISIONES COMPLETADAS'. The main content area is titled 'NISAE - Experiencia Laboral (Ficheros)' and shows a search form with fields for 'Solicitante', 'Estado', 'Fecha desde', and 'Fecha hasta'. Below the search form is a table with columns: 'Fichero solicitante', 'Solicitante', 'Fecha solicitud', 'Fecha respuesta', 'Estado', and 'Motivo rechazo'. The table contains two rows of data. The first row shows a file named 'A_B0c726726_S_A0431370g_EXPPROF_FILESEXPLABAP_20220609_151600.zip' for 'Empresa Ficticia Activa' with a request date of '09/06/2022 15:17:22' and a response date of '10/06/2022 12:48:15', with the status 'Pendiente Entrega cesionario'. The second row shows a file named 'A_B0c726726_S_A0431370g_EXPPROF_HI_HSERVICI_ARAP_20220609_151600.zip' for 'Empresa Ficticia Activa' with a request date of '09/06/2022 15:17:03' and the status 'Pendiente descarga'. The bottom of the page shows pagination controls: 'Primera página', 'Anterior', 'Página 1 de 1', 'Siguiente', 'Última página', and 'Mostrando 1 - 2 de 2'.

PIFen bidez fitxategia deskargatzea (programatikoki)

Lagatzaileak PIFen bidez modu programatikoan jardutea erabakitzen badu, PIF erabiltzaile bat izan beharko du (erabiltzailea EJERI eskatu behar zaio, eta hark esleituko du).

Lagatzaileak PIF eremuan topatuko ditu eskaera-fitxategiak, zehazki, ibilbide honetan:
`/[codigoAPP]/filesNISAE/solicitudes/`

Jasotako fitxategi bakoitza karpeta konprimatu bat (.zip) izango da, honako izenarekin:
A/IM_[CIFSolicitante]_S_[CIFCedente]_[CodProcCesionario]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HHmmss].[extension]

- **CIFSolicitante:** Erakunde eskatzailearen IFK.
- **CIFCedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK.
- **CodProcSolic:** Eskaera gauzatzeko aurrera eramaten ari den prozeduraren kodea.
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa. (Adibidez: FILESEXPLABAP)
- **yyyyMMdd:** Fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.
- **HHmmss:** Fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **Extensión:** zip


Barruan egongo da jatorrizko eskaera-fitxategia (.csv formatua), metadatuaren fitxategia (.txt formatua) eta sinaduraren fitxategia (.xml formatua).

Erantzun-fitxategiak sortzea eta igotzea (lagatzailea)

Lagatzaileak jasotako eskaera-fitxategia deskargatzen duenean, bere negozioan prozesatzen duenean eta itzuli beharreko erantzun-fitxategia sortzen duenean, NISAEra igo beharko du eskaera-fitxategia deskargatu zuen modu berean.

NISAEren bidez fitxategia igotzea (Eskuzko bitartekaritza)

Zain dauden fitxategiak erlaitzean, fitxategia deskargatutakoan, “Erantzuna igo” eta “Baztertu” botoiak gaituko dira.



- Erantzuna igo: formulario bat izango du lagapen-hartzaileari bidaltzeko sortutako erantzun-fitxategia (CSV formatua) aukeratzeko.
- Baztertu: menu zabalgarri bat izango du, eta eskaera-fitxategia baztertzeko arrazoiak aukeratu beharko dira.
 1. Fitxategiaren formatu okerra
 2. Fitxategiaren eduki okerra
 3. Erakunde lagatzaile okerra
 4. Baztertzeko beste arrazoi batzuk

PIFen bidez fitxategia igotzea (programatikoki)

Jasotako eskaera-fitxategiari erantzunez lagatzaileak sortutako erantzun-fitxategia zuzen tratatzeko eta bidaltzeko, NISAEren PIF eremuan utzi behar da, zehazki, ibilbide honetan: **/x53ji/filesNISAE/respuestas/**

Fitxategia honela izendatu behar da:

A_[CIFSolitante]_R_[CIFCedente]_[CodProcCedente]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HHmmss]_[yyyyMMdd-Resp]_[HHmmss-Resp].[extension]

- **CIFSolitante:** Erakunde eskatzailearen IFK. Jasotako eskaera-fitxategiaren izenaren balio bera.
- **CIFCedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK. Jasotako eskaera-fitxategiaren izenaren balio bera.
- **CodProcCedente:** Lagatzailearen erantzun-prozedura bereziaren kodea. Eskatzaileak erabilitako prozedura-kodearen berdina izango da, baina "--RESP" atzizkiarekin.
 - o **Adibidez:** 01327--RESP
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa. (Adibidez: FILESEXPLABAP). Jasotako eskaera-fitxategiaren izenaren balio bera.
- **yyyyMMdd:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan. Jasotako eskaera-fitxategiaren izenaren balio bera.
- **HHmmss:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan. Jasotako eskaera-fitxategiaren izenaren balio bera.
- **yyyyMMdd-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.

- **HHmmss-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **Extensión:** csv

NISAEren bidez fitxategia bidaltzea

Egunero exekutatu da prozesu automatizatua. Prozesu horrek fitxategiak jaso (eskaerenak zein erantzunenak), banan-banan prozesatu eta dagokion erakundeari bidaliko dizkio.

Prozesu horrek lagatzaileak bidalitako erantzun-fitxategia hautemango du eta prozesatu egingo du:


- Sinadura-fitxategi bat sortuko da (*detached* sinadura .xml formatuan), bidaltzean fitxategia ez dela aldatu bermatzeko eta erakunde eskatzaileak, hala nahi badu, egiaztatu ahal izateko.
- Erantzun-fitxategiaren metadatuaren fitxategi bat sortuko da (.txt formatua), erantzun-fitxategiaren gaineko informazioarekin (izena, tamaina...).
- Sortutako fitxategiak eta jatorrizko erantzun-fitxategia .zip formatuan konprimatuko dira, eta zuzenduta dagoen eskatzaileari bidaliko zaio.

Erantzun-fitxategia jasotzea (lagapen-hartzailea)

Eskaera-fitxategia bidaltzeko erabilitako bide beretik deskarga dezakete erantzun-fitxategia eskatzaileak.

NISAEren bidez fitxategia deskargatzea (Eskuzko bitartekaritza)

“Zain dauden fitxategiak” erlaitzean lagatzailearen erantzun-fitxategia agertuko da “Deskargatzeko zain” egoeran, eta “Erantzuna deskargatu” botoia gaituta izango du.



Deskargatutako fitxategi bakoitza karpeta konprimatu bat (.zip) izango da, honako izenarekin:
A/IM_[CIFSolicitante]_R_[CIFCedente]_[CodProcCedente]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HHmmss]_[yyyyMMdd-Resp]_[HHmmss-Resp].[extensión]

- **CIFSolicitante:** Erakunde eskatzailearen IFK.
- **CIFCedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK.
- **CodProcCedente:** Lagatzailearen erantzun-prozedura bereziaren kodea. Eskatzaileak erabilitako prozedura-kodearen berdina izango da, baina "--RESP" atzizkiarekin.
 - o **Adibidez:** 01327--RESP
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa. (Adibidez: FILESEXPLABAP)
- **yyyyMMdd:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.
- **HHmmss:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **yyyyMMdd-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.
- **HHmmss-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmmss* formatuan.
- **Extensión:** zip

Barruan egongo da lagatzaileak sortutako jatorrizko erantzun-fitxategia (.csv formatua), metadatuaren fitxategia (.txt formatua) eta sinaduraren fitxategia (.xml formatua).

PIFen bidez fitxategia deskargatzea (programatikoki)

Lagatzaileak PIF eremuan topatuko ditu erantzun-fitxategiak, zehazki, ibilbide honetan:
/[codigoAPP]/filesNISAE/respuestas/

Deskargatutako fitxategi bakoitza karpeta konprimatu bat (.zip) izango da, honako izenarekin:
A/IM_[CIFSollicitante]_R_[CIFCedente]_[CodProcCedente]_[CodServicio]_[yyyyMMdd]_[HHmss]_[yyyyMMdd-Resp]_[HHmss-Resp].[extensión]

- **CIFSollicitante:** Erakunde eskatzailearen IFK.
- **CIFCedente:** Eskaera-fitxategia zuzenduta dagoen erakunde lagatzailearen IFK.
- **CodProcCedente:** Lagatzailearen erantzun-prozedura bereziaren kodea. Eskatzaileak erabilitako prozedura-kodearen berdina izango da, baina “--RESP” atzizkiarekin.
 - o **Adibidez:** 01327--RESP
- **CodServicio:** Kontsultatutako zerbitzuaren identifikazio-kodea, 13 karakterekoa.
(Adibidez:
FILESEXPLABAP)
- **yyyyMMdd:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.

- **HHmss:** Jatorrizko eskaera-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmss* formatuan.

- **yyyyMMdd-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-data, *uuuuHHee* formatuan.

- **HHmss-Resp:** Erantzun-fitxategiaren sorrera-ordua, *HHmss* formatuan.
- **Extensión:** zip

Barruan egongo da lagatzaileak sortutako jatorrizko erantzun-fitxategia (.csv formatua), metadatuaren fitxategia (.txt formatua) eta sinaduraren fitxategia (.xml formatua).

Kontsiderazioak

Erakunde parte-hartzaileak

Erakunde parte-hartzaileek eman beharreko datuak dira, organo kudeatzailea eta erakundearen arduraduna zein izango diren adieraziz (fitxategien trukeekin lotutako oharra posta elektronikoz jasotzeko).

Erakunde bakoitzean (lagapen-hartzailea edo lagatzailea) fitxategien trukea kudeatzeaz arduratuko diren pertsonak dira.

Honako hau da prozesua: NISAEtik ohar bat bidaltzen zaie aplikazioan alta emanda dauden erakundeei. Komunikazio horretan Excel bat atxikitzen da erakunde bakoitzaren antolaketa-egiturarekin.

Erakunde bakoitzean (lagapen-hartzailea edo lagatzailea) fitxategien trukeaz arduratuko den arduradunaren eta eskatzailearen datuak taula horretan (Excel) itzul ditzaten da helburua.

Behin jasota, Sail teknikoari bidaltzen zaio. Aplikazioan egitura eta kontaktu horiek inplementatzeaz arduratzen da Sail teknikoa.

Zerbitzu eta baimen berriak

Elkarreragingarriak ez diren zerbitzuei alta eman behar zaie NISAEn, gainerako zerbitzuei bezala.

Fitxategien formatua

Bidalitako fitxategien izendapena, edukia eta luzapena IVAP-EJk proposatuak eta harekin hitzartuak dira.

Fitxategien bidalketaren funtzionamendu egokia bermatzeko arreta berezia jarri behar zaie fitxategien izenei. Bereziki, PIFen bidez modu programatikoan bidaltzen diren fitxategien kasuan:

FILES zerbitzuak

Elkarreragingarriak ez diren zerbitzuetarako fitxategien bidalketak trazetan erregistratzen dira.